



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

## **AMANKOMUNAZGOAK BERE KONTUETAN GIZARTE ZERBITZUAK BERMATZEN DITU**

**Guztira 6,6 milioi eurotako kopurua izango da, iaz baino %3,4 gutxiago. Herriek ematen duten diru kopurua jeitsi egin da Durangoko zein Berrizko aportazioa izan ezik.**

**Gizarte ekintzarako sailak, aurrekontuetako %42,8ko gastua biltzen du. Aurten ere, orain arte eskeini diren zerbitzu guztiak mantentzen dira.**

**Aurten promozio ekonomikoa zein enplegua, Amankomunazgoko erronkak izango dira iaz bezala. Beraz, merkataritza, enpresak zein lanean dauden langileak bultzatzen jarraituko da eta baita langabezian daudenak enplegua lortzeko plangintzak ere.**

Durangaldeko Amankomunazgoak 2013. urterako aurrekontuak onartu ditu. Guztira 6,6 milioi eurotako kopurua da, iaz baino %3,4 gutxiago, hau da 238.516 euro gutxiago. Hala eta guztiz ere “gutxiengo honek ez du esan nahi eskeintzen ditugun zerbitzuak murriztu behar ditugunik, proiektu berriak abian jarriko ditugu ere” azaldu du Amankomunazgoko presidentea den Oskar Zarrabeitiak.

Bestalde eskualdeko udalek jartzen duten dirua gutxiago izango da, konkretuki 18.707 euro gutxiago, hau da %2,8a, Durango eta Berriz izan ezik. Durangoren kasuan bere biztaliariaren kopurua haunditu egin da beste herriekin alderatuta eta horregatik 26.174 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Berrizek berriz, 23.968 euro gehiago ordaindu beharko ditu, Behargintzako zerbitzugatik.

## **GIZARTE EKINTZA**

Aurrekontuetako kopuru gehiena Gizarte ekintzako sailak izango du. Guztira 2,8 milioi euro izango dira, hau da %42,8a. Diru kopuru honekin Amankomunazgoak orain arte izan dituen zerbitzuak mantenduko ditu, hau da: Gizarte laguntzarako zerbitzua; gizarte larrialditarako laguntzak; etxeko laguntza; familia, gazteria zein umeentzako esku-hartze sozio-educatiboa; drogomenpekotasun prebentzioarako plana, pertsona helduentzako zerbitzua; laguntza juridikoa; Emakume, familia zein umeentzako laguntza psikologikoa eta neguko aterpeko zerbitzua.

Honekin batera, Amankomunazgoak 15.000 erotako diru-laguntza du minusbaliotasun psikikoa duten bertakotze promozioaren programak bultzatzeko, bai aisialdi ekitaldietan zein senitartekoak laguntzen. Bestalde 3.000 euro emango zaizkio Herria elkarteari eta beste 5.000 euro Atxarteko egoitzari (Gorabide)

## **INBERTSIOAK**

Bestalde, inbertsioen atalean, aurten 10.481,04 euro inbertituko ditu Amankomunazgoak. “Aurten daukagun legegintzak ez digu uzten inbertsioak egiten. Dena den egin behar badira egingo dira” azaldu du Zarrabeitiak.

## **GAINONTZEKO ATALAK**

Aurrekontuetako atalik garrantzitsuenak hauek dira:

- Behargintza: 471.067 euro. Orain arte bultzatu diren plangintzak jarraituko dute, hau da formazioarako zein ekintzaile diren proiektuak bultzatzen jarraituko da. Orain arte aurrera eraman diren 16 ekintzetaz gain beste zenbait kurtsuak ere programatuko dira, halaber lehen laguntzarako ikastaroa, ur-sorospenerako ikastaroa beste batzuen artean...
- Okupazional zentrua: 892.542 euro. Eskeintza formatibo berdina mantentzen da.

- Zabor bilketa: 1,3 milioi euro, iaz baino %0,46 gutxiago. Aurten, pasadan urtean hasitako plangintzarekin amaituko da, hau da bilketaren inguruan burutako foroak amaitutzat emango dira eta hemendik atera diren ekintzak aurrera eramango dira.
- KUIB: 68.550 euro.
- Euskera: 120.548 euro, Iaz baino % 41,6 gehiago. Zerbitzu hau guztiz finkatuta dago Amankomunazgoan. Aurten gainera Euskera erabileraren plana, Beharsarea eta Zarea proiektuak bultzatuko dira ere. Eskualdean euskeraren transmisio eta erabilera indartuko dira ere, “Zergaitik ez” edo “Zabu-Zibu” programen bitartez.
- Atletismoko pista: 158.780 euro, iaz baino % 38,6 gehiago. Aurten aldagelen margotzea, errotulazioa eta seinaleztapen lanak amaituko dira. Bestalde kirol instalazioaren erabilelaren arauen erredakzion hasi gara. Aurten ere 18.500 euro inbertituko dira, Durangon, ekainaren 22 eta 23an ospatuko den Espainako gazteen txapelketarako. Gainera beste 31.500 euro emango dira diru-laguntzetan, instalazio hauetan ekintzak burutuko dituzten elkarreentzat.
- Belodromoa: 63.300 euro, iaz baino % 5,3 gehiago. Kirol instalazio honen eguneko gastua mantentzen da, baita ere bertan eta Trinketean eta pistan burutzen den eskoletako programak. Kirol ekintzetarako 3.000 euro onartzen dira ere.
- Trinketea: 150.150 euro, iaz baino % 38,6a. Proiekturik esanguratsuen BTtko 15 ibilbideak izango dira eta horrek dakarren homologazioa. Honen kostua 62.315 euro izango direlarik. Bestalde 1.000 euro onartzen dira beste proiektu batzuk bultzatzeko.
- Tokiko agenda 21: 111.732 eurotako kopuruarekin aurre egingo zaizkie aurtengo ekintzei. Eskualdeko aire-kalitatearen ikerketa, mugikortasun ekologikoa eta mugikortasun seguruaren umeentzako tailerrak egiteko, zein ikasleek sare sozialak erabiltzearen ohartarazteko plana ere.